

GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN FAKULTATEAREN ARAUDIA GRADU ETA GRADU BIKOITZEKO IKASKETETAN MUGIKORTASUNA BURUTZEKO (ERASMUS+, LATINOAMERIKA, BESTE NORAKO BATZUK ETA SICUE) (Fakultateko batzordearen akordioa 2024ko ekainaren 13an)

1. Ikasleak UPV/EHUko unibertsitateko mugikortasun programei buruzko arautegia ezagutu beharko du (ERABAKIA, 2017ko irailaren 28koa, UPV/EHU Gobernu Kontseiluarena, UPV/EHU ikasleen nazioarteko mugikortasun programei buruzko arautegia onartzeko eta hori aldatzen eta/edo ordezkatzan duten akordioak) eta, Fakultateko mugikortasun koordinatzaileen aholkularitzaz, atzerriko unibertsitatearen ikasketa planei, eskakizunei eta baldintzei buruz informatu beharko da.
2. Harrerako erakundean egin beharko ditu UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean egiten dabilen titulazio ofizialeko programaren partetzat aitortuko zaizkion ikasketak.
3. Eskaria egitean, gutxienez, graduako bigarren urtean egon beharko da matrikulatuta.
4. Ikasleak 54 kreditu gairituak izan beharko ditu mugikortasun-eskaera egiteko unean.
5. Ikaslea Fakultatean kreditu kopuru jakin batean egon beharko da matrikulatuta UPV/EHUan, eta kopuru hori egin beharko du norako unibertsitatean:
 - a. lauhileko bateko egonaldietarako, 30 kreditu gutxienez.
 - b. ikasturte osoko egonaldietarako, 60 kreditu gutxienez.
6. "Latinoamerika" eta "Beste norako batzuk" programetan parte hartzen duen ikasleak kontuan hartu beharko du zein den UPV/EHUko eta atzerriko unibertsitateko kredituen arteko baliokidetzak, eta, edozein kasutan, 30 edo 60 ECTS kredituren parekoa egin beharko du, egonaldiaren iraupenaren arabera.
7. Ikasleak ezin izango ditu hitzarmen akademikoan Gradu Amaierako Laneko kredituak sartu. Mugikortasuna graduako 4. mailan burutuko duten ikasleek, lauhileko bateko egonaldiak baino ezin izango dituzte eskatu. Horiek lehen lauhilekoan egingo dira beti, eta ezin izango da egonaldia luzatu. Bestetik, gradu bikoitzeko ikasleek ezingo dute mugikortasunik burutu 5. mailan.
8. Atzerriko unibertsitateko hizkuntza frantsesa edo alemana bada, gutxienez B1 maila edo parekoa eskatuko da, edo unibertsitate horrek berak eskatzen duena. Ingelesez irakasten den lekuetarako, eskatuko den gutxienerako maila B2 edo parekoa izango da (norako unibertsitateak gehiago eskatu ezean).

9. Hitzarmen akademikoan egonaldia egingo den ikasturteko UPV/EHUko irakasgaiak baino ezin daitezke sartu. Era berean, ezin izango dira sartu "**nahikoa**", "**suspentso**" edo "**Ez aurkeztua**" kalifikazioa jaso duten irakasgaiak. Hitzarmen akademikoak dagokion Dekanordearen onspena izan beharko du betiere. Hitzarmenean zerbait aldatzen bada dekanordeak aurretik baimena eman barik, aldatutako irakasgaiak ez du aitortza akademikorik izango.
10. Nazioarteko mugikortasun programetan parte hartzen duten ikasleek gogobetetze inkesta bete eta entregatu beharko entregatuko du bere egonaldian, betiere itzuli aurretik.
11. Helmugan ikasleek lortutako kalifikazioen **aitortza akademikoa** burutzeko, atzerriko zentroetan egindako unibertsitate-ikasketen batez besteko noten baliokidetasun-taulak erabiliko dira (aintzatespenaren unean indarrean daudenak), gai horretan eskumena duen Ministerioak argitaratutakoak.
12. **Nazioarteko mugikortasun programetan parte hartu ahal izateko**, ikasleak, deialdiaren aukeraketa egiten den unean, bere espediente akademikoan batezbesteko nota 6,50 izan beharko du. Salvuespen moduan, aurretik Buddy programan egoki parte hartu duen ikasleari 6,00ko batezbesteko nota onartu ahal izango zaio. Hori fakultateak kudeatzen dituen norakoei soilik aplikatuko zaio.
SICUE programan parte hartzeko, ikasleak 6,00ko batezbesteko nota izan beharko du.
13. , **Esleitzerako momentuan**, nota minimo hori duen ikasleari, merituengatik beste puntu bat gehitu ahal izango zaio, hau da, aurreko deialdietan Buddy edo/eta Ikaskide programan parte duenari (0,5 programa bakoitzeko). Batuketa hori fakultateak kudeatzen dituen norakoei soilik aplikatuko zaio eta ez du SICUE programarako balioko.
14. **SICUE programan**, jasotako eta bidalitako ikasle-kopuruaren arteko oreka bilatze aldera, 44 plazako muga ezartzen da, honela banatuta: Kazetaritza (10), Publizitatea eta Harreman Publikoak (10), Ikus-entzunezko Komunikazioa (8), Zientzia Politikoa eta Kudeaketa Publikoa (5), Soziologia (5), gradu bikoitza Ikus-entzunezko Komunikazioa + Kazetaritza (2), gradu bikoitza Kazetaritza + Publizitatea eta Harreman Publikoak (2), gradu bikoitza Zientzia Politikoa eta Kudeaketa Publikoa + Soziologia (2). Gradu edo gradu bikoitzeko plazak hutsik geratzen badira, kalifikazio onenen arabera esleituko dira, eskatzaileak zein graduakoak diren kontuan hartu gabe.
15. Era berean, ikasleak bete beharko ditu Errektoreordetzak eta Nazioarteko Harremanen Bulegoak ezartzen dituen baldintzak eta eskakizunak.